

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredu)
 EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
 2008/2009 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

“Apollo” programa, John F. Kennedy EEBBetako *lehendakaria* sustatzaile zela, jaino zen 1961eko maiatzean. Gizakiak gidatutako ontzi bat Ilargian *hamarkadaren* bukaeran baino lehenago (“before this decade is out”, Kennedyren hitzetan) pausatzea zen helburua.

Helburua lortzeko hainbat prozedura aztertu ziren. Hauetan lehena metodo zuzena zen. Espaziontzi erraldoi bakar bat jaurtiko zen Ilargirantz. Behin Ilargitik gertu, bere propulzio-sistemak mantsogotuko zuen ontzia; ilargiratze-**urratsak** egingo zuen lan hori. Beste propulzio-sistema batek, ilargiuzte-urratsak, ontzia Ilargitik lurrera **bidaliko** zuen.

Bigarren proposamenak esaten zuenez, bi ontzi desberdinek banandurik eramango zituzten espaziontziaren bi zatiak (ilargiratze-urratsa eta ilargiuzte-urratsa) Lurraren orbitara. Han, biak lotu eta Ilargirako bidea hartuko zuten.

Hirugarren bide bat aukeratu zen: Saturn V.a. Honek jaurtigailu bakarra zuen, hiru tripulatzaille zeuzkan eta 45.000 kg pisatzen zuen Apollo ontzia zeraman Ilargirako bidean jartzeko. Ontzia Ilargira hurbildutakoan (2 egun eta erdi beranduago gutxi gorabehera), propulzio-sistemak Ilargiaren orbitan jarri zuen. Ilargiaren orbitan ontziaren zati batek, ilargi modulu izenekoak, barnean bi *tripulatzaille* zituela bestea utzi eta ilargi hartzera zuzendu zen. Beste zatia, aginte-modulua, Ilargia orbitatzen gelditu zen.

Ilargiaren esploratzaileek, **zolan leunki** pausatu ondoren, inguruaren esplorazioa eta alde aurretik prestatutako saio zientifikoak egin zituzten. Egun bat bertan igaro ondoren, Ilargia utzi eta agintze-moduluarekin bat egin zuten Ilargiaren orbitan. Azkenik, ontziaren propulzio-sistemak Lurrerantz abiarazi zuen Apolloa.

Maniobra hauek guztiak egiteko **oso** kontrol eta gidatze sistema zehatza behar izan zen.

<<Apollo>> espaziontzia hiru moduluz osatuta zegoen: aginte, zerbitzu eta ilargi moduluez. Aginte-moduluan ontziaren kontrol-zentroa zegoen eta baita hiru astronauten etxea ere. Itxura konikoa zuen eta 3'95m-ko garaiera eta 4m-ko diametroa zituen. Bere pisua 4.500kg-koa zen. Aginte-moduluaren muturrean dorre **moduko** egitura bat zegoen. Honen lana *jaurtiketan* zehar arazorik egonez gero, aginte modulua “Saturn” *jaurtikigailutik* banantzea zen.

Aginte-moduluaren azpian zerbitzu-modulua zegoen. 7,25m luze eta 4m diametro. Bertan, ibilbidean zehar egin beharreko norabide-zuzenketarako sistema, Ilargi-orbitan sartzeko erretro-koheteak eta Ilargi-orbitatik Lurrerantz abiarazteko propulzio-sistema zeuden.

Zerbitzu-moduluaren eta Saturn V jaurtigailuaren artean Ilargi-moduluaren egokitzailea zegoen. Honen betebeharra Ilargi-modulua edukitzea zen. Ilargi-moduluan bi astronautarentzat zegoen tokia eta hauek orbitatik Ilargiaren gainazalera eramatea zen bere lana. Ilargi-moduluak 6,93m-ko garaiera eta 3,63m-ko diametroa zituen. Lurrean 15.000 kg pisatzen zituen eta sei aldiz gutxiago Ilargian.

Irazabalbeita, I.

Hautsi ditugu kateak, espaziora goaz (moldataua)

Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *urratsak, bidalitako, zoluan, oso, moduko, helburua* (1'5 puntu).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat).
3. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin: Hona hitzak: *jaurtikigailutik, jaurtiketan, leunki, tripulatzaille, lehendakaria, hamarkadaren* (1'5 puntu).
4. Aztertu testuaren koherentzia eta kohesioa (3 puntu).
5. Egin ezazu testuaren gaineke balorazio kritikoa (2 puntu).
6. Bernardo Atxaga: koka ezazu bere garaian eta mintza zaitez bere obren ezaugarriez (Puntu bat).

**UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)
 EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
 2008/2009 IKASTAROA**

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Zenbat ezagun dituzu lo egiteko pastilla nahitaezko dutenak? Zenbat, estresa dela-eta antsiolitikoak hartzen dituztenak? Eta ezbehar baten ostean lasaigarriak kontsumitzen hasi direnak? Edozein familia-medikuri galdetuz gero, kontsultak halakoez beteta dituela erantzungo dizu; are gehiago, asko eta asko psikofarmako horien menpe bizi dira.

Ander Larrinaga bizkaitarrak –izena aldatu diogu– 34 urte ditu eta hamalau daramatza Trankimazin hartzen, menpekotasun handia sortzen duen bentzodiazepina multzoko lasaigarria, angustia eta antsietate kasuetarako oso erabilia. “Hogei urterekin, krisi gogor bat izan nuen: hurrengo segundoan hilko nintzen sensazioa, baina segundoz segundo errepikatua ordubetez. Zaila da azaltzen, ez da hain fisikoa, psikologikoa baino, konortea galdu aurretik bezala. Arazo pertsonalak nituen momentu hartan eta petsatzen dut hein batean eragingo zutela”, kontatu digu Larrinagak. Larrialdietara joan eta makina bat proba egin ostean, esan zioten ez zuela ezer fisikorik, antsietate krisi bat zuela. Horrelako krisiak sarritan izaten hasi zen, sarriegi eta bigarren edo hirugarren kontsultarako familia-medikuak pastilla eman zion.

“Kristoren mesedea egin zidan, asko lasaitu ninduen eta berauek hartzen hasi nintzen”. Lau urtez, Trankimazin pila bat kontsumitu zuen; gomendatutakoa jarraitu beharrean txarto sentitzen zen bakoitzean lasaigarrira jotzen zuen eta jarrera horrek areagotu egiten du menpekotasuna. “Lau orduko tartean bost hartzera irits nintekeen, bi miligramo inguru. Larrialditan sartuta eman nituen lehen lau urteak”. Gainera, gaur egun medikuntza protokoloak dio bentzodiazepina ezin dela hiru hilabetetik aurrera errezetatzen jarraitu, sortzen duen menpekotasuna dela-eta, baina orduan ez zegoen halakorik eta konturatzerako Ander Larrinaga Trankimazinaren morroi bihurtu zen.

Larrinagaren historiarekin aurrera jarraitu aurretik, komeni da gogoratzea Anderrena ez dela kasu isolatua, inondik inora. Finean, gizarte erabat farmakologizatuta da gurea, haurdunalditik hasi eta zahartzaroraino. Botikekiko baino, medikuntzarekiko menpekotasuna dugula da arazoa, Iñigo Altuna mediku homeopataren ustez. Beraren esanetan, medikuek menpekotasun hori indartu baino ez dute egiten: “Medikuntzari leporatzen diodana da ez ditugula pertsona askeak egiten, euren buruen jabe. Nahita, nahi gabe... baina hala da. Kontsultak pazientez beteak ditugulako kexu gara, baina nork eragin du hori? Hamabostero tentsioa hartzera joatearen gisako beharrak nork sortu ditu?

Lehen jendea askeagoa zen, orain medikuaren esanetarako dago eta guk, sustraiko gaitza gainditzen lagundu beharrean, askotan zuzenean medikatu egiten

ditugu. Egun, kontsultara 80 urteko pertsona bat joan eta fitxarik ez duela ikusiz gero, galdetuko diote: “Eta zergatik ez zara lehenago inoiz etorri?” ‘Osasuntsua izan naizelako eta ez dudalako beharrik izan’. Denek atera beharko lukete zoriontzera, oparia eman beharko lioke Osakidetzak. Horren ordez, segituan hasiko dira tentsioa hartzen, fitxa egingo diote, eta egun horretan tentsioa altuxeagoa ematen badu, akabo, hasiko da medikuntzarako dependentzia”.

Altunak dio osasunaren inguruko neurosia bizi dugula gizartean, eta hedabideek zabaltzen dituzten mezuek eta medikuntzatik iristen diren etengabeko gomendikoak – kontrajarriak batzuetan– ez dutela mesede egiten. Argi dago hemen ez dagoela inor sufritzeko, ez dugu zertan heroiak izan, baina zahartzerakoan pixka bat galtzea normala da, ezta?

Argia, 2008ko urriaren 28a

Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *Ostean, aurretik, hein, sarriegi, bihurtu* (Puntu bat).
2. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin: *Haurdunaldia, medikuntza, menpekotasun, lasaigarri* (Puntu bat).
3. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak. Hona hitzak: *Dizu, digu, zen, dio* (Puntu bat).
4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat).
5. Aztertu testuaren egokitasuna (3 puntu).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
7. Gabriel Aresti: aipa itzazu bere idazlan nagusienak eta idazteko erabili zuen estiloa (Puntu bat).